

Be[di]girada

DILEMA DIGITALAK BEGIRADA
FILOSOFIKOTIK LANTZEKO GIDA DIDAKTIKOA

**EGOITZ DE LA IGLESIA GANBOA
AMAIA ARROYO SAGASTA**





Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Lan hau Aitortu-**EzKomertziala-LanEratorririkGabe** Nazioarteko 4.0 Creative Commons lizentziarekin partekatu daiteke.
Informazio gehiago: <https://creativecommons.org/licenses/by-nd/4.0/legalcode.eu>



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Be[di]girada

DILEMA DIGITALAK BEGIRADA
FILOSOFIKOTIK LANTZEKO GIDA DIDAKTIKOA

**EGOITZ DE LA IGLESIA GANBOA
AMAIA ARROYO SAGASTA**

Be[di]girada

Dilema digitalak begirada filosofikotik lantzeko gida didaktikoa

Egileak:

Egoitz de la Iglesia Ganboa eta
Amaia Arroyo Sagasta

Erakundea: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Urtea: 2022

Dirulaguntza: Humanitate digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzeko deialdia 2021

ISBN: 978-84-09-56290-9

Lege Gordailua: 01069-2023

Diseinua: Azk Taldea.

Inprimaketa: Gertu Inprimategia

Elkarlanean aritutako erakundeak:



Irudiak:

Filosofo guztien irudiak domeinu lizentziapean daude.

- **Platon:** Marie-Lan Nguyen (2006) - https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Plato_Pio-Clemetino_Inv305.jpg
- **Aristoteles:** Jastrow (2006) - https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Aristotle_Altemps_Inv8575.jpg
- **Agustin Hiponakoa:** Mladifilozof (2009) - https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Augustine_Lateran.jpg
- **Tomas Akinokoa:** <https://www.nationalgallery.org.uk/paintings/carlo-crivelli-saint-thomas-aquinas>
- **Descartes:** André Hatala (1997) - https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Frans_Hals_-_Portret_van_Ren%C3%A9_Descartes.jpg
- **Hume:** <https://www.nationalgalleries.org/art-and-artists/60610/david-hume-1711-1776-historian-and-philosopher-1754>
- **Kant:** <http://www.philosophieth.de/kant-bilder/bilddaten.html>
- **Nietzsche:** <https://i.pinimg.com/originals/04/10/0b/04100baec90c105729b47f33c371476b.jpg>
- **Marx:** International Institute of Social History - https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Karl_Marx_001.jpg

Gainontzeko irudiak sortzeko Adimen Artifiziala erabili da (OpenAI, 2023)

1

**Zer da gida hau?
Nola eraiki da gida?**
4-7

2

**Zer lanketa
bideratzen du?
Nola dago
antolatuta?**
8-11

3

**Nola erabili
gida hau?**
12-15

4

Autoreak
16-45

4.1. Platon 18

4.2. Aristoteles 20

4.3. Agustin
Hiponakoa 22

4.4. Tomas
Akinokoa 24

4.5. Descartes 26

4.6. Hume 28

4.7. Kant 29

4.8. Nietzsche 32

4.9. Marx 34

**Zer da gida hau?
Nola eraiki da gida?**

1

Zer da gida hau?



Esku artean duzun gida didaktikoak zure gelan lanketa filosofikoa begirada digitaletik elikatzeko helburua du.

Eta zertan datza begirada digital hori? Bada, humanismo digitalaren oinarri filosofiko (humanismo) eta soziologikoetatik (digitalizazioa) abiatuz, ikasleengan pentsamendu kritikoa sustatzean. Izan ere, bizi dugun digitalizazio prozesu honetan, gizakia birdefinitzen ari gara. Nora garamatza definizio berri horrek? Kritikoak al gara daramagun norabidearekin? Behar bezala hausnartzen al dugu honi guztiari buruz?

Dilemen aurrean gaude, zalantzarik gabe, eta asko ez dira berriak. Hausnarketa filosofikoan betidanik landu izan diren dilemekin lotura dago eta, beraz, gaur gaurkoz, hainbat galdera filosofikoren lanketa digitalizazioaren eragin eta inplikazioekin lotzea izan beharko litzateke Filosofia ikasgaiaren konpromisoetako bat. Horretarako baliabide praktikoa izan nahi du gida honek.


Nola eraiki da gida?

Gida honen atzean, ikerketa lan bat dago.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko KoLaborategia ikertaldea dago lanaren atzean, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Euskal Wikilarien Elkarteak (EWK) Humanitate Digitalen alorrean esleitutako beka batek diruz lagunduta.



Esku artean duzun gida didaktikoa sortzeraino, hauxe izan da jarraitutako prozesua:



Zer lanketa bideratzen du? Nola dago antolatuta?

2

Zer lanketa bideratzen du?



**Digitalizazioarekin lotutako dilemak Filosofiako
autoreekin lerrokatzen dira.**

Horrela, bi lanketa mota bideratu daitezke:

Alde batetik, ikasleekin gai bera garai eta **ikuspuntu teoriko ezberdinetatik** jorratu daiteke. Betiko dilema filosofikoak **gaur egungo testuinguru digitalean** lantzeak ikasleek gaiarekiko atxikimendu handiagoa lortzeko aukera ematen du. Beren egunerokotasunaren parte diren egoera edo dilemak planteatuz, filosofiak gaur egun daukan balioa ulertzeko moduan egongo dira. Antzinaroan abiatutako hausnarketa prozesuak gaur egun zilegitasuna galdu ez duela, alegia.

Bestetik, gaur egungo dilemek filosofiaren galdera klasikoekin bat egiten dutela ikusteak filosofiaren historiaren baitan dagoen **koherentzia** ulertzen lagunduko du. Horrela, ikasleak **filosofiaren historia pentsamenduaren bilakaera bezala** ulertzeko testuingurua sortzen da, autore eta korrante ezberdinen arteko erlazioak ikusaraziz.

Nola dago antolatuta?

Guztira, digitalizazioarekin lotutako **9 dilema** identifikatu eta Filosofiako ikasgaien lantzen diren **9 autoreekin** lerrokatu dira.

DILEMAK	PLATON	ARISTOTELES	AGUSTIN	TOMAS	DESCARTES	HUME	KANT	NIETZSCHE	MARX
Mundu fisikoa/birtuala	■		■	■					
Algoritmoak	■								■
Izate algoritmikoa		■							
"Homo birtualis"		■		■				■	
Gizakiaren askatasuna			■				■		
Zer da ezagutza?					■	■	■		
Konponbidetasun teknologikoa					■			■	
Espazio-denbora konfigurazio berria							■		
Teknologiaren intenzionalitatea									■

Nola erabili gida hau?

3

Nola erabili gida hau?



Gida hau ez da unitate didaktiko bat. Ez du gelan lantzeko proiektu bat proposatzen. Eta ez da goitik behera jarraitzeko diseinatu. Gida honek gelan egiten duzun lanketa filosofikoaren osagarri izan nahi du.

Horretarako, landu behar dituzun autoreen pentsamendua gaur egun digitalizazioak proposatzen dituen dilemekin lotzeko galderak eta ideiak proposatzen ditu. Dilema batzuk autore bat baino gehiagorekin lotu dira eta, beraz, aurretik aipatutako garapen lerroa lantzeko aukera dago. Era berean, beste autore batzuekin ere loturak bilatzen ditu, baita lantzea pertinentea izan daitekeen beste gai filosofiko batzuekin ere.


Hori guztia egiteko, autore bakoitzarekin dilema batzuk lantzen dira. Lanketa hori egiteko, ondorengo atalak jasotzen dira dilemaren orrialde bakoitzean:

- Filosofiako lanketarako autoreak
- Humanismo digitalaren dilema
- Hausnartzeko galderak
- Jorratzen diren gai filosofikoak
- Euskal Wikipediako sarrera erabilgarriak
- Hausnarketa bideratzeko azalpena
- Euskal Wikipediako estekak

Atal horiek baliatu eta lanketa egiteko, honako aukerak balia ditzakezu:

- Filosofiako autorearen lanketa egin **ostean**, digitalizazioarekin lotutako dilema aurkeztu ikasleei Helburua da autorearen pentsamendu eta ideiarekin lanketaren transferentzia egitea, gaur egungo egoeran dauden galderak lantzeko eta eszenatokia aztertzeko.
- Filosofiako autorearen lanketa egin **aurretik**, digitalizazioarekin lotutako dilema aurkeztu ikasleei. Helburua da autorearen pentsamendu eta ideien hurbilpena gaur eguneko testuingurutik egitea, ikasleen motibazioa eta atxikimendua pizteko.

Hurrengo orrialdean, autore baten dilema baten proposamenaren adibidea duzu, lanketarako eskaintzen dituen atal guztien erreferentziarekin.



Filosofiako lanketarako autorea

PLATON

Humanismo Digitalaren dilema

1. DILEMA: Mundu fisikoa/birtuala

Hausnartzeko galderak

Errealitate birtuala gure mundu fisikoa baino errealagoa bilakatzen ari da?

Mundu digitala berezko errealitate berri bat al da?

Jorratzen diren gai filosofikoak

Gai filosofikoak

- Ontologia
- Haitzuloaren mitoa
- Dualismoa

Euskal Wikipediako sarrera erabilgarriak

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- San Agustinen gorputza eta arima gatazka
- Tomas Akinokoa
- Hobbes eta Descartesen mekanizismoa
- Transhumanismoa

LANKETA

Digitalizazio prozesuak errealitate alternatiboak sortu ditu eta, oraindik ere, sortzen jarraitzen du. Gaur egun, mundu guztiak ezagutzen du errealitate birtuala eta askok bizi edo esperimentatu ere egin dute. Horrekin batera, gaur egun eratzen ari den Metabertsoa dugu, guztiz digitala/birtuala den mundu bat: lagunekin ibili, erosketak egin, jolastu, filmak ikusi... bertan, dena egin daiteke. Ezin dugu jakin zein izango den mundu birtual horren garapena, ezta muga non izango duen ere. Aitzitik, gure buruari galderak egin diezaizkiogu; hala nola, zein eragin izango du giza harremanetan? Nola harremanduko gara beste pertsonekin mundu horretan? Zein izango da naturarekin izango dugun erlazio mota? Errealitate birtual horrek ez al gaitu jada ukatzen, zigortzen, molestatzen gaituen mundu fisikoa are gehiago ukatzera eramango? Errealia al da nire bizitza fisikoko ekintza berdinak egiteko aukera ematen didan mundu birtuala? Zer da errealitatea bera?



Ikusi dilema Wikipedian


Dilema Euskal Wikipedian ikusteko QR kodea

Autoreak

4

Autoreak





■ PLATON

1. DILEMA: Mundu fisikoa/birtuala

Errealitate birtuala gure mundu fisikoa baino errealagoa bilakatzen ari da?

Mundu digitala berezko errealitate berri bat al da?

Gai filosofikoak

- Ontologia
- Haitzuloaren mitoa
- Dualismoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- San Agustinen gorputza eta arima gatazka
- Tomas Akinokoa
- Hobbes eta Descartesen mekanismoa
- Transhumanismoa

LANKETA


Digitalizazio prozesuak errealitate alternatiboak sortu ditu eta, oraindik ere, sortzen jarraitzen du. Gaur egun, mundu guztiak ezagutzen du errealitate birtuala eta askok bizi edo esperimentatu ere egin dute. Horrekin batera, gaur egun eratzen ari den Metabertsoa dugu, guztiz digitala/birtuala den mundu bat: lagunekin ibili, erosketak egin, jolastu, filmak ikusi... bertan, dena egin daiteke. Ezin dugu jakin zein izango den mundu birtual horren garapena, ezta muga non izango duen ere. Aitzitik, gure buruari galderak egin diezaizkiogu; hala nola, zein eragin izango du giza harremanetan? Nola harremanduko gara beste pertsonekin mundu horretan? Zein izango da naturarekin izango dugun erlazio mota? Errealitate birtual horrek ez al gaitu jada ukatzen, zigortzen, molestatzen gaituen mundu fisikoa are gehiago ukatzera eramango? Errealia al da nire bizitza fisikoko ekintza berdinak egiteko aukera ematen didan mundu birtuala? Zer da errealitatea bera?




Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Algoritmoen bidez definitzen dugu gaur egun Internetekin dugun erlazioa, hein handi batean. Sarean agertzen zaiguna ez da ausazkoa: denok ez dugu informazio bera jasotzen eta ikusten duguna zeharo pertsonalizatua dago. Hori horrela izanda, eta sarea informazioa bilatzeko, gustuko duguna ikusteko, ikasteko, komunikatzeko... lehio nagusia izanda, gure mundua (edo mundu digital/birtuala) algoritmoek gidatzen dutela esan daiteke. Beraz, esan genezake Interneteko bilatzaileen erabilera intentsiboak gure pentsamendua bera ere konfiguratzeko duela, nolabait. Zer esanik ez garapenean bete-bete duden pertsonengan Googlekiko dependentsiak sortzen dituen ondorioak: bilatzailearen atzean dagoen algoritmoak eta horrek dakarren pertsonaliza-zioak gure pentsatzeko modua konfiguratzeko baitu. Haratago joanda, esan genezake ezagugarritzen gaituen mundua eta gure errealitatea bera algoritmoek definitzen dutela, neurri batean. Sakelakoan agertzen zaigun guztia algoritmo pertsonalizatu horiek erabakitzen duten neurrian, gure errealitatea bera konfiguratu egiten dute, eta errealitatearen beste zenbait aspektu ezagutzeko mugak ezartzen dituzte.



Ikusi dilema
Wikipedian



PLATON

2. DILEMA: Algoritmoak

Ba al dakizu zer dagoen sarean agertzen zaizkizun berri, iragarki, bideo eta abarren atzean?

Zuk erabakitzen duzu zer ikusi sarean edo beste inork egiten al du?

Gai filosofikoak

- Ontologia
- Ideian Mundua
- Etika
- Filosofo Erregea

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Ontologia
- Ilustrazioa edo Argien Garaia
- Pentsamendu kritikoa
- Pentsamendu askatasuna



ARISTOTELES

1. DILEMA: Izate algoritmikoa

Ba al dakizu sarean agertzen zaizkizun berri, iragarki, bideo... abarren atzean zer dagoen?

Zu zeu zara sarean edo zure aztarna digitalaren gainean eraiki duten profil bat?

Gai filosofikoak

- Ontologia
- Metafisika
- Logika

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Ilustrazioa edo Argien Garaia
- Pentsamendu kritikoa
- Pentsamendu askatasuna
- Algoritmoa

LANKETA

Aristotelesek *Izatea* eta izateko modu ezberdinak aztertu zituen, errealitate fisikoaren baitan dagoen logika eta ordena azaleraziz. Aristotelesek *Izatea* "gauzen" oinarritzko ezaugarritzat zuen eta natura aztertuz *Izate* hori topatu zitekeela defendatzen zuen, munduaren ordena eta logika ezagutuz. Gaur egun, ordea, errealitate maila berri bat dugu: mundu birtuala, alegia. Jakin beharra dago sarean ikusi eta jasotzen dugunaren atzean ere ordena bat dagoela: algoritmo ezberdinek definitzen duten ordena, hain zuzen ere. Jokoen arauak aldatu egin dira, errealitate fisikoaren ordenak eta algoritmoen ordenak ez baitute berdin funtzionatzen. Kontziente al gara, gaur egun, Internetek ez digula erakusten berez dagoena? Gure izaera edo profil birtualaren araberako filtro algoritmikoa definitzen duena agertzen zaigu. "Norbaitek" gure profilarekin bat datorrena zer den erabaki du eta horixe da bistaratzen diguna. Hori horrela, sarearen baitan gure *Izate* edo izateko modu bat garatzen ari da: izate algoritmikoa. Gure mundua, pentsamendua, interesak, gustuak... ez ditugu geuk definitzen: algoritmoek egiten dute eta, gainera, guk definitzen dugula sinetsarazten digute. Aristotelesen *Izatea* izate natural bat zen, mundua antolatzen zuena. Gaur egun inguratzen gaituen izate algoritmikoa ausazkoa al da? Ala naturalki eratu eta moldatzen da? Interesik dago bere definizioan?



Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Mendeetan zehar, gizakia definitu nahi izan da bere esentzia identifikatuz: animalia politiko eta arrazionala, arima duena, homo faber, homo ludens... Gaur egun Aristotelesek saiakera hori berrigo egingo balu, teknologiak eta bere aspektu birtualak definizio horren baitan egongo lirateke. Egun sare sozialetan gure beste izate bat sortzeko aukera dugu, askotan ez garen baina izan nahi dugun hori proiektatu ohi dugularik, gure buruaren transformazio moduko bat eginez: erreala ez den transformazioa da, itxurazkoa, proiektio bat? Jatorrian itxurazkoa den hori sarean egiazko bilakatzen da. Esan al daiteke gizakiaren izatearen aspektu berri bat dela? Arimaren bertsio moderno baten aurrean al gaude? Azken finean gure izate birtualak gu biziraun gaitzake. Zer esanik ez hau adimen artifizialarekin lotuko balitz eta bertan gure abatar birtual batek gure lekua hartuko balu. Azken finean, sarean sortzen dudak profilak gorputz fisikoaren mugak gainditzen dituen nire aspektu bat bezala uler daiteke. Hau da, arima bezala ikusi dezakete belaunaldi berriek. Hori horrela, zein aspektu da erreala? Non dago gure esentzia? Ba al dago esentziarik gizakia bere burua birtualki asmatu dezakegun garai honetan? Pertsonaren esentziaren beharra al dago? Zer da gizaki egiten gaituena? Izan al daiteke gizaki bat gizaki biologiarik gabe?



Ikusi dilema
Wikipedian



ARISTOTELES

2. DILEMA: "Homo birtualis"

Gizakia natural, sozial, politiko, arrazional... bezala definitua izan da.

Gizaki mota berri baten aurrean al gaude? Gizaki birtuala edo "homo birtualis", alegia?

Gai filosofikoak

- Gizakia: animalia arrazionala
- Gorputza eta arima
- Metafisika

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Gizaki
- Arima
- Errealitate birtuala



AGUSTIN HIPONAKOA

1. DILEMA: Mundu fisikoa/birtuala

Errealitate birtualak gure mundu fisikoa baino errealagoa bilakatzen ari da?

Mundu digitala berezko errealitate berri bat al da?

Gai filosofikoak

- Jainkoaren hiria - gizakion hiria
- Transzendentzia - immanentzia

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Materialismoa
- Mekanizismoa

LANKETA

Digitalizazio prozesuak errealitate alternatiboak sortu ditu eta, oraindik ere, sortzen jarraitzen du. Gaur egun, mundu guztiak ezagutzen du errealitate birtuala eta askok bizi edo esperimintatu ere egin dute. Horrekin batera, gaur egun eratzen ari den Metabertsoa dugu, guztiz digitala/birtuala den mundu bat: lagunekin ibili, erosketak egin, jolastu, filmak ikusi... bertan, dena egin daiteke. Ezin dugu jakin zein izango den mundu birtual horren garapena, ezta muga non izango duen ere. Aitzitik, gure buruari galderak egin diezaizkiogu; hala nola, zein eragin izango du giza harremanetan? Nola harremanduko gara beste pertsonekin mundu horretan? Zein izango da naturarekin izango dugun erlazio mota? Errealitate birtual horrek ez al gaitu jada ukatzen, zigortzen, molestatzeko gaituen mundu fisikoa are gehiago ukatzera eramango? Errealia al da nire bizitza fisikoko ekintza berdina egiteko aukera ematen didan mundu birtuala? Zer da errealitatea bera?



Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Gaur egun, orain dela mende edo urte batzuk baino askeagoak garen ideia errotuta dago: "nahi baduzu, egin dezakezu" lemapean bizi garela esan daiteke. Barrura begiratzen badugu, egia al da hori? Teknologiarekiko dugun menpekotasunak kolokan jartzen du baieztapen hori; askatasunaren amaieraren aurrean al gaude? Interneten uzten ditugun datuek nolabaiteko determinismo bat finkatzen dute. Hau da, datuek sarean nor garen eta nor izango garen definitzen dute, eta horrek saretik kanpo dituen inplikazioak ditu. Kontuan izanda Internetek gure egunerokotasunaren esparru gero eta gehiago bustitzen dituela, non geratzen da aukeratzeko dugun askatasuna? Datuen eta algoritmoen bidez gure burua definitzean, saretik jasotzen duguna iragazi egiten da. Beraz, nola erabaki dezakegu aurretik, sarean jasoko duguna aurre-definiturik egonda?



Ikusi dilema
Wikipedian



AGUSTIN HIPONAKOA

2. DILEMA: Gizakiaren askatasuna

Askatasun indibidualaren
amaierako garaian al gaude?

Askatasunik al dago Big
Dataren gizartean?

Gai filosofikoak

- Askatasuna eta gaitzaren arazoa
- Transzendentzia - immanentzia

Wikipediako beste sarrera
erabilgarriak

- Askatasun
- Algoritmoa
- Datu handiak



TOMAS AKINOKOA

1. DILEMA: Mundu fisikoa/birtuala

Errealitate birtuala gure mundu fisikoa baino errealagoa bilakatzen ari da?

Mundu digitala berezko errealitate berri bat al da?

Gai filosofikoak

- Transzendentzia - immanentzia
- Esentzia - existentzia dilema
- Gorputza - arima gatazka

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Materialismoa
- Hobbes eta Descartesen mekanizismoa
- Transhumanismoa

LANKETA

Digitalizazio prozesuak errealitate alternatiboak sortu ditu eta, oraindik ere, sortzen jarraitzen du. Gaur egun, mundu guztiak ezagutzen du errealitate birtuala eta askok bizi edo esperimentatu ere egin dute. Horrekin batera, gaur egun eratzen ari den Metabertsoa dugu, guztiz digitala/birtuala den mundu bat: lagunekin ibili, erosketak egin, jolastu, filmak ikusi... bertan, dena egin daiteke. Ezin dugu jakin zein izango den mundu birtual horren garapena, ezta muga non izango duen ere. Aitzitik, gure buruari galderak egin diezaizkiogu; hala nola, zein eragin izango du giza harremanetan? Nola harremanduko gara beste pertsonekin mundu horretan? Zein izango da naturarekin izango dugun erlazio mota? Errealitate birtual horrek ez al gaitu jada ukatzen, zigortzen, molestatzen gaituen mundu fisikoa are gehiago ukatzera eramango? Errealia al da nire bizitza fisikoko ekintza berdinak egiteko aukera ematen didan mundu birtuala? Zer da errealitatea bera?



Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Mendeetan zehar, gizakia definitu nahi izan da bere esentzia identifikatuz: animalia politiko eta arrazionala, arima duena, homo faber, homo ludens... Gaur egun Aristotelesekin saiakera hori berrigo egingo balu, teknologiak eta bere aspektu birtualak definizio horren baitan egongo liriteke. Egun sare sozialetan gure beste izate bat sortzeko aukera dugu, askotan ez garen baina izan nahi dugun hori proiektatu ohi dugularik, gure buruaren transformazio moduko bat eginez: erreala ez den transformazioa da, itxurazkoa, proiektio bat? Jatorrian itxurazkoa den hori sarean egiazko bilakatzen da. Esan al daiteke gizakiaren izatearen aspektu berri bat dela? Arimaren bertsio moderno baten aurrean al gaude? Azken finean gure izate birtualak gu biziraun gaitzake. Zer esanik ez hau adimen artifizialarekin lotuko balitz eta bertan gure abatar birtualak gure lekua hartuko balu. Azken finean, sarean sortzen dudana profilak gorputz fisikoaren mugak gainditzen dituen nire aspektu bat bezala uler daiteke. Hau da, arima bezala ikusi dezakete belaunaldi berriek. Hori horrela, zein aspektu da erreala? Non dago gure esentzia? Ba al dago esentziarik gizakia bere burua birtualki asmatu dezakegun garai honetan? Pertsonaren esentziaren beharra al dago? Zer da gizaki egiten gaituena? Izan al daiteke gizaki bat gizaki biologiarik gabe?



Ikusi dilema
Wikipedian



TOMAS AKINOKOA

2. DILEMA: "Homo birtualis"

Gizakia natural, sozial, politiko, arrazional... bezala definitua izan da.

Gizaki mota berri baten aurrean al gaude? Gizaki birtuala edo "homo digitalis", alegia?

Gai filosofikoak

- Arrazoia - Fedea gatazka
- Nominalismoa
- Arima - Gorputza gatazka

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Gizaki
- Arima
- Errealitate birtuala
- Kristautasuna
- Budismoa
- Orfismoa
- Arima - Kontzientzia gatazka

LANKETA

Teknologiaren garapenean eta horrek emango dizkigun erantzun positiboetan dugu jarrita itxaropen guztia. Gaur egun, inoiz baino gehiago, gizakion gaitz eta arazo guztien konponbidea teknologia izango delakoan gaude. Giza adimenak konpondu ezin izan duena garapen teknikoari esker lortuko dugun fedea ukaezina eta absolutua da. Alde batetik, adimen artifizialaren garapena dugu: gizakion lan eta ardura ezberdinak hartuko ditu eta, horrela, bizimodu hobea izango dugu. Beste aldetik, gizakiaren muga biologikoak teknologiaren bidez gainditu nahi ditugu; gure gorputzak garapen teknologikoen bidez hobetuz, gizakiaren aspektu biologiko eta naturala gaitz bat bezala definitzen dugu, gaitza teknologia bidez ordezkatzeko esperantzarekin. Descartesentzat gorputza eta natura bera makina hutsak direla kontuan hartuta, zer esango luke gaur egun transhumanismoak planteatzen dituen eronka horien guztien inguruan? Teknologian izango genuke, Descartesen aburuz, gure gaitz guztien konponbidea?



Ikusi dilema
Wikipedian



DESCARTES

2. DILEMA: Konponbidetasun teknologikoa

Egunko eronka eta arazo sozial, ekonomiko eta teknologikoei aurre egiteko teknologia al da konponbidea?

Teknologia izan behar al da erantzuna beti?

Gai filosofikoak

- Mekanizismoa
- Dualismoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Materialismoa
- Positibismoa
- Transhumanismoa



HUME

1. DILEMA: Zer da ezagutza?

Ezagutzaren garaian al gaude benetan?

Datuak eta ezagutza gauza bera al dira?

Gai filosofikoak


- Epistemologia
- Tabula Rasa - Egitura innatua gatazka
- Errealismo inozoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Epistemologia
- Datu handiak

LANKETA


Humen epistemologian, datuak dira lehenengoa, fenomenoetatik jasotako informazioarekin ulertzen eta azaltzen baitugu mundua. Dirudienez, gaur egun, datuak eskura izatea eta ezagutza lortzea edo eraikitzea gauza bera dira. Mundu digitalean, datuek hartu dute ezagutzaren balioa eta kontzeptu biak parekatu egin dira, gauza bera direla ulertzeraino. Datuek helburu instrumental bati erantzuten diotenez, ez dira pilatzen mundua edo errealitatea ezagutzeko, ezta ezagutza ezagutze hutsagatik ere. Big Data-ren atzean dagoena zera da: datuen erabilera politikoa, ekonomikoa eta soziala. Beraz, datuen gaineko obsesioak ez du mundua ulertu eta azaldu nahi; ezer ulertu eta azaldu gabe, gizakia kontrolatzea du helburu. Filosofikoki ezagutzaz ari garenean, ordea, munduaren azalpen holistikoari buruz ari gara. Gai al dira datuak azalpen holistiko hori eraikitzeko? Esanguratsuak edo beharrezkoak al dira? Datuek munduaren, gizakiaren, bizitzaren... azalpenik ematen al dute? Sarean, uzten dugun informazioak nolabaiteko egitura bat osatzen du (Big Data). Egitura hori algoritmo bidez antolatzen dela kontuan hartuta, termino filosofikoetara eramanda, algoritmoa egitura innatua izango litzateke eta Big Data sentikortasunaren datuak. Zeinek agintzen du, ordea? Datuek edo algoritmoek? Arrazionalisten eta enpiristen arteko gatazkak bizirik jarraitzen du.



Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Dirudienez, gaur egun, datuak eskura izatea eta ezagutza lortzea edo eraikitzea gauza bera dira. Mundu digitalean, datuek hartu dute ezagutzaren balioa eta kontzeptu biak parekatu egin dira, gauza bera direla ulertzeraino. Datuek helburu instrumental bati erantzuten diotenez, ez dira pilatzen mundua edo errealitatea ezagutzeko, ezta ezagutza ezagutze hutsagatik ere. Big Data-ren atzean dagoena zera da: datuen erabilera politikoa, ekonomikoa eta soziala. Beraz, datuen gaineko obsesioak ez du mundua ulertu eta azaldu nahi; ezer ulertu eta azaldu gabe, gizakia kontrolatzea du helburu. Filosofikoki ezagutzaz ari garenean, ordea, munduaren azalpen holistikoari buruz ari gara. Datuek munduaren, gizakiaren, bizitzaren... azalpenik ematen al dute? Bestetik, nola eta zeren arabera antolatzen da datu andana hau? Kantek sentikortasunetik lortutako datuak antolatzeko subjektu transzendental proposatu zuen. Big Dataren garaian, zer izan daiteke subjektu transzendental hori? Algoritmoa? Akaso, algoritmoek sortzen duten antolakuntza ikusezina da egitura transzendental hori. Algoritmoa eta Big Dataren arteko erlazioaren dilema arrazionalista eta enpiristen arteko gatazkaren bertsio moderno gisa mahai gaineratu daiteke. Ildo horretatik, Internet subjektu transzendental bat bezala ulertzerik al dago, orduan?



Ikusi dilema
Wikipedian



KANT

1. DILEMA: Zer da ezagutza?

Ezagutzaren garaian al gaude benetan?

Datuak eta ezagutza gauza bera al dira?

Gai filosofikoak

- Epistemologia
- Subjektu Transzendental
- Arrazionalismoa - Enpirismoa gatazka

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Epistemologia
- Datu handiak



KANT

2. DILEMA: Gizakiaren askatasuna

Askatasun indibidualaren amaierako garaian al gaude?

Askatasunik al dago Big Dataren gizartean?

Gai filosofikoak

- Askatasuna
- Giza Eskubideak
- Etika deontologikoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Etika
- Morala
- Atonomia
- Borondatea

LANKETA

Gaur egun, orain dela mende edo urte batzuk baino askeagoak garen ideia errotuta dago: "nahi baduzu, egin dezakezu" lemapean bizi garela esan daiteke. Barrura begiratzen badugu, egia al da hori? Teknologiarekiko dugun menpekotasunak kolokan jartzen du: askatasunaren amaieraren aurrean al gaude? Interneten uzten ditugun datuek nolabaiteko determinismo bat finkatzen dute. Hau da, sarean nor garen eta nor izango garen definitzen dute, eta horrek saretik kanpo dituen inplikazioak ditu. Kontuan izanda Internetek gure egunerokotasunaren esparru gero eta gehiago bustitzen dituela, non geratzen da aukeratzeko dugun askatasuna? Datuen eta algoritmoen bidez gure burua definitzean, saretik jasotzen duguna iragazi egiten da. Beraz, nola erabaki dezakegu aurretik, sarean jasoko duguna aurre-definiturik egonda? Kantek askatasuna etikaren eta inperatibo kategorikoaren postulatu bezala irudikatu zuen. Gaur egun, gure askatasunaren nolabaiteko bukaeraren aurrean bagaude, zer gertatuko da Giza Eskubideen oinarri den pentsamendu honekin? Posible al da izaki moral eta etikoak izaten jarraitzea, askatasunik ez badugu? Zer esango lukete Hiponako Agustinek, Rousseauk edo Sartrek bezalako pentsalariek?



Ikusi dilema
Wikipedian

LANKETA

Denbora eta espazioaren pertzepzioa guztiz aldatu da. Denbora berehalakotasunean murgildu da eta dena lehenaldian dagoela dirudi: berandu gabilta edozein gauza egiteko. Era berean, espazio fisikoa eraldatu egin da, sarean distantziak ez direlako existitzen.

Gazteon mundua espazio eta denbora berrien araupean eraiki da. Gai al gara eskema horretan bizi direnak behar duten bezala hezteko? Ildo beretik, profesionalen espazioa eta denbora ere aldatu egin dira, ez dugulako leku fisiko komun bat behar norbaitekin biltzeko; denborak ere aldatu egin dira, lan jardun amaigabeari atepak parez pare irekiz (une oro emailera lotuta, adibidez). Kant izan zen lehenengoa espazioa eta denbora errealtatearen ezaugarri baino gizakiaren pertzepzioaren baldintza bezala definitzen.

Mundu birtualak, sareak, espazio eta denboraren birdefinizioa ekarri du. Bestela esanda, espazio eta denboraren dimentsio birtuala sortu du. Nola aldatzen dute dimentsio berri hauek gure egunerokotasuna: erlazioak, lanbideak... mundua? Zer esango luke Nietzschek bere bitalismotik, betiereko itzuleraren ideia kontuan izanda? Zer gertatzen da Marxen historiaren baldintza materialistarekin?



Ikusi dilema
Wikipedian



KANT

3. DILEMA: Espazio-denbora konfigurazio berria

Mundu birtualak espazio eta denbora berriak ekarri dizkigu. Zer da espazio eta denbora Interneten garaiak?


Espazio eta denbora birtuala da gure etorkizuna?

Gai filosofikoak

- Espazio eta Denbora
- Epistemologia
- Bitalismoa
- Materialismo historikoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Espazio denbora
- Espazioa
- Denbora
- Errealtate birtuala



NIETZSCHE

1. DILEMA: Konponbidetasun teknologikoa

Egunko erronka eta arazo sozial, ekonomiko eta teknologikoei aurre egiteko teknologia al da konponbidea?

Teknologia izan behar al da erantzuna beti?

Gai filosofikoak

- Bitalismoa
- Apolo eta Dioniso
- Mekanizismoa
- Positibismoa
- Transhumanismoa

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Existenzialismoa
- Existentzia
- Homo sapiens
- Posthumanismo

LANKETA

Teknologiaren garapenean eta horrek emango dizkigun erantzun positiboetan dugu jarrita itxaropen guztia. Gaur egun, inoiz baino gehiago, gizakion gaitz eta arazo guztien konponbidea teknologia izango delakoan gaude. Giza adimenak konpondu ezin izan duena garapen teknikoari esker lortuko dugun fedea ukaezina eta absolutua da. Alde batetik, adimen artifizialaren garapena dugu: gizakion lan eta ardura ezberdinak hartuko ditu eta, horrela, bizimodu hobea izango dugu. Beste aldetik, gizakiaren muga biologikoa teknologiaren bidez gainditu nahi ditugu; gure gorputzak garapen teknologikoen bidez hobetuz, gizakiaren aspektu biologiko eta naturala gaitz bat bezala definitzeari ekin diogu berriro ere, gaitza teknologia bidez ordezkatzeko esperantzarekin. Nietzscheren bitalismoak bizitza goraiatzea proposatzen du, horrek dakarren oparotasun eta dekadentziarekin. Zientzia eta teknologiaren bidez, dekadentzia biologikorik gabeko gizakiak bilakatzea proposatzen du transhumanismoak eta posthumanismoak. Zilegia eta desiragarria al da horrelako izaki bilakatzea? Gure existentziak balio berdina al du esfortzu, gaitz eta erronka natural edo fisikorik gabe? Bestela izanda ultragizakia, gizaki zibernetiko edo teknologikoa izan al daiteke?



Ikusi dilema
Wikipedian


LANKETA

Gizakia mendeetan zehar bera bizitzaren edo ezaugarri konkretuen bidez definitu nahi izan da. Animalia politiko, animalia arrazional, arima duena, homo faber, homo ludens... Gaur egun teknologiak eta honen aspektu birtuala gura bizitzaren, egunerokotasunaren, erlazioan eta pentsatzeko modu eta gaitasunen neurri bat izanik, animalia birtuala edo teknologiko bezala defini gaitezke?

Honekin batera gizakiaren aspektu biologikoa gainditu nahi duen pentsamendurik badago, transhumanismo erradikala alegia. Pentsamendu erradikal hau defendatu gabe, gure egunerokotasunean pareko ideia bat defendatzen dugu modu xumeago batean. Sare sozialetan ez garen baina izan nahi dugun hori proiektatu ohi dugu, gure buruaren transformazio moduko bat eginez. Erreala ez den transformazioa bat, itxurazkoa den proiektio bat. Baina itxura den hau, sarean zeharo erreala da, egiazkoa bilakatzen da. Hau onartuta, zein da erreala? Non dago gure benetako izatea? Edo ba al dago benetako izaterik, nahi dugun izatea birtualki asmatu dezakegun garai honetan? Benetako izate bat behar al da orduan? Zer da gizaki egiten gaituena? Izan al daiteke gizaki bat gizaki biologiarik gabe?



Ikusi dilema
Wikipedian



NIETZSCHE

2. DILEMA: "Homo birtualis"

Gizakia natural, sozial, politiko, arrazional... bezala definitua izan da.


Gizaki mota berri baten aurrean al gaude? Gizaki birtuala edo "homo birtualis", alegia?

Gai filosofikoak

- Bitalismoa
- Ultragizakia
- Izatea - Gizakia definizioa
- Arima - Gorputza gatazka

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Izatea
- Gorputz-Arima gatazka
- Erljioa
- Transzendentzia-inmanentzia



MARX

1. DILEMA: Algoritmoak

Ba al dakizu zer dagoen sarean agertzen zaizkizun berri, iragarki, bideo eta abarren atzean?

Zuk erabakitzen duzu zer ikusi sarean edo beste inork egiten al du?

Gai filosofikoak

- Materialismo Historikoa
- Alienazioa
- Jainkoaren Heriotza

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Heriotza
- Byun-Chul Hang
- Zygmund Bauman

LANKETA

Algoritmoen bidez definitzen dugu gaur egun Internetekin dugun erlazioa, hein handi batean. Sarean agertzen zaiguna ez da ausazkoa: denok ez dugu informazio bera jasotzen eta ikusten duguna zeharo pertsonalizatua dago. Hori horrela izanda, eta sarea informazioa bilatzeko, gustuko duguna ikusteko, ikasteko, komunikatzeko... lehoi nagusia izanda, gure mundua (edo mundu digital/birtuala) algoritmoek gidatzen dutela esan daiteke. Beraz, esan genezake Interneteko bilatzaileen erabilera intentsiboak gure pentsamendua bera ere konfiguratzeko duela, nolabait. Azken finean, bilatzaileen atzean dauden algoritmoek eta horiek dakartzaten pertsonalizazioak gure pentsatzeko modua konfiguratu du. Esan genezake ezaugarritzen gaituen mundua eta gure errealitatea bera algoritmoek definitzen dutela, neurri batean. Sarea-Algoritmoa, Marxekin batera, herriaren opio berria bezala defini dezakegu: algoritmoaren atzean dagoen hiper-pertsonalizazio horretan gure eskema mentaletatik ateratzen ez uzteaz aparte, gure pentsamendua egituratu eta bideratzen delako. Jasotzen dugun informazioak gure kontsumo ohiturak mantendu eta areagotzera bideratzen gaituen neurrian, algoritmoek kontsumoaren alienazio prozesua indartzen dute. Materialismo historikoaren birtualizazio edo urtea al dago hemen? Nietzschek aldarrikatzen duen Jainkoaren heriotzaren beste ondorio bat al da? Edo heriotz berri baten aurrean al gaude? Mundu fisikoaren edo materiaren heriotza eta, beraz, bizitza berarena?



Ikusi dilema
Wikipedian


LANKETA

Teknologiaren erabilerak zein ekoizpenak interes konkretuei erantzuten diote. Garapenaren eta erabileraren atzean, borondate ekonomiko eta politikoak daude, gehien bat. Beraz, teknologia intentzionala bada, nork eta nola kontrolatu beharko luke horren bilakaera? Ez al litzateke teknologia gizaki ororen onerako garatu behar, interes zehatz batzuri erantzuteko baino? Gai izango al gara garapen eta erabileraren gainean kontrola ezartzeko? Nola? Zein erakunde izan behar da hori guztia kontrolatzeko ardura eta gaitasuna duena? Edo merkatu libreari utzi beharko diogu erabakitzen teknologiaren garapena eta bere erabilera nagusiak definitzen? Teknologia Marxen Kapitalaren ideia modernoa dela esan dezakegu: merkatuak eta kapitalak norabide bat duen neurrian, gizartea menderatu egiten du. Gaur egun, digitalizazioaren eta teknologiaren bidez ematen da prozesu hori: teknologiak eta kapitalak bat egin dute, nolabait esanda.

Horiek dira gizartea menperatzeko baliabide nagusiak. Alde batetik, kontrola mantentzeko tresnak direlako, algoritmoen, big data-ren, geolokalizazioaren... bidez. Beste aldetik, kontsumo elementu nagusia direlako, desio edota behar bat dagoelako horiek eskuratzeko. Sare sozialak herriaren opio berria direla esan daiteke. Baina teknologiaren erabilerak zein distribuzioak arrakala sozialak areagotzen eta larriagotzen ditu. Gizartean behar eta desio teknologikodigitalak sortzen dira eta horiek askotariko arrakalen jatorriak dira.



Ikusi dilema
Wikipedian



MARX

2. DILEMA: Teknologiaren intentzionalitatea

Teknologia intentzionala da, ez da neutroa. Norbaitek kontrolatzen al du bere garapena edo libre doan mugimendua da?

Garapen teknologikoa ez da ausazkoa. Zein helbururi erantzuten dio?

Gai filosofikoak

- Kapitalismoa
- Merkatuaren logika
- Alienazioa
- Gizarte arrakalak

Wikipediako beste sarrera erabilgarriak

- Arrakala digitala
- Kontsumo gizartea
- Slavoj Žižek
- Datu handiak

